


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko maiatzaren 5a / VI. urtea / 177. zenbakia

Antoine d'Abbadie eta Lore Jokoak

1853an, Antoine d'Abbadiek —Dublinen jaiotako zientzilari famatuak, aita zuberotarra izanik Hendaian laketua zenak— lehen Euskal Bestak antolatu zituen Urruñan (Lapurdi), euskal literatura, kirola, eta ohiturak goresteko. Euskal Pizkundearen barruan garrantzitsuak izan ziren oso ekitaldi hauek, beren inguruan bildu baitziren Darrigol, Bonaparte Printea, Intxauspe, Duvoisin edo Arturo Kanpion bezalako euskalzaleak. Urruñakoen ondotik Saran ospatu ziren, eta geroago Donapaleu, Elizondo edo Bera. 'Lore Jokoak' izenarekin, Euskal Herri osoa zeharkatu zuten, eta euskal pizkundearen barruan lan esanguratsua bete zuten.

Beran bi aldiz ospatu ziren, 1880an eta 1895an, eta bigarrenengoaren ehungarren urtea dela eta, bertako Euskara Zerbitzuak ospakizunak prestatu ditu ekaina eta abuzturako. Lore Jokoen oinarria zen literatur lehiaketarako epea zabalik, haurrentzako ekitaldiak antolatuko dira ekainaren 17an eta 18rako, eta abuztuan, Berako jaiekin batera, d'Abbadieri buruzko erakusketa paratuko da herrian.



Goian, Antoine d'Abbadie. Hemen ezkerrean, Hendaia Abadia bere jauregia.
ABADIAKO ADISKIDEAK

GUERE AUKERAK

IKASTARROAK

Animazio Teknikak eta Jokoak izeneko ikastaroa antolatu du hilabete honetarako Urtxintxa Aisialdirako Formazio Eskolak. Gazte, begirale, hezitzaile eta animatzaileei zuzendutako ikastaro hau maiatzaren 20an eta 27an izanen da, goiz eta arratsaldeko saioetan, Urtxintxa Eskolan. Ikastaroa Maite Pascual NAEko zuzendariak eskainiko du.

Autoestima eta Trebetasun Sozialak ikastaroak antolatu ditu datozen asteetarako Andrea Emakumeentzako Zerbitzuak. Asteartean eskainiko da, arratsaldeko ordutegian. Informazio gehiago nahi duenak 22 77 14 telefonora deitu edo Andreako egoitzara (Navarrerria 15) joan besterik ez du.

MUSIKA

Ratos de Porao, Beer Mosh eta Levial musika taldeen kontzertua izanen da bihar larunbata, hilak 6, Lakuntzako Matraka dantzalekuan. Gaueko 10.00etan hasita, sarrerak 1.500 pezetan salduko dituzte. Aurretik erosiz gero 1.200ean lor daiteke.

Los Dinosaurios musika taldeak kontzertua eskainiko du heldu den ostegunean, maiatzak 11, Iruñeko Antzerki Eskolako areto nagusian. Gaueko 9etan hasita, sarrerak 900 pezetan salduko dituzte.

Ilegales eta Escarabajos musika taldeen kontzertua izanen da gaur ostirala, hilak 5, Garesko dantzalekuan. Gaueko 11.00etan hasiko da. Sarrerak 1.500 pezetan.

ANTZERKIA

'Mephisto' izeneko antzezlan eskainiko du gaur ostirala, maiatzak 5, Artesena-Gipuzkoako Teatro Publikoak Iruñeko Gaiarre antzokian. Iruñeko udalak antolatutako 'Bedatseko giroa' zikloaren barruan. Arratsaldeko 8.00etan hasiko da, eta sarrera 1.000 pezeta kostako da.

Antzerki Express taldeak 'Francisca Alegre y Ole' izeneko lana taularatuko du igande honetan, maiatzak 7, Nafarroako Antzerki Eskolako aretoan. Bihar, bestalde, eta zikloaren barruan, Teatro Inestable Mandragora taldeak 'La visita de la vieja dama' izeneko antzezlan plazaratuko du, leku berean. Bi emanaldiak arratsaldeko 8.00etan hasiko dira.

BESTELAKOAK


Txillardegi idazleak mintzaldia eskainiko du heldu den asteartean, maiatzak 9, Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartearen Bertan, 'Euskal Herria helburu' liburuz —idatzi duen azkenaz— mintzatuko da arratsaldeko 8etatik aurrera.

NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Bidea lagun versus bidea zordun

Gaurko egunez, Lata-san diren infernuko ateak ongi hertsia direla koan, autobidea zabalduko dute. Azken aste honetan, komunikabide gehienetan, ETA, Koordinakundea, intolerantzia, eta gastuak neurri gabe gehitu bezalako adierazpenak irakur zitezkeen Irurtzun-Andoain autobidearen inguruan. Alta, ezer gutxi azaldu da errepide honen historia ez hain hurbilaz. Hobekuntzaren aurreko urteetan Nafarroa Garaiko errepide sareak zer esan handirik eman zuen. Orduko Diputazioan autobia baino autopista nahiago. Autopista egitea erabaki, eta bi enpresari taldek aurkeztutako eskaintzak aztertu ziren. Talde 'nafarra' omen zen egokiena. Lanak bukatzean aurrekontua bikoiztu egin zuen talde honek, —aktoreak desberdinak izan arren antzezlan bera maiz taulartzten da— eta hasiera batean Kastejon-Iruñea-Gipuzkoa zenak, Irurtzongo herrian izan zuen akabera. Ederra sartu digute!, abertzale askoren ustea. Gehiago ordaindu, Diputazioa hipotekatu eta Gipuzkoarako bidea lehen bezain zaildua. Politiko grisa, taktiko 'ona' (egun ikusgai dena), ustez pentsalaria, beti saltsan dagoen pertsona, ezaugarri hauek guztiak biltzen dituen Del




Burgo 'junior' jaunaz ari naiz. Orduko Diputazioan eszedentzia eskatu eta autopista eraiki behar zuen enpresan aholkulari lanetan sartu. Ondorioak ezagunak ditugu. Garcia de Dios, ata-

ka igarotzen alferrik saitu zen ere. Ehun eta bost kilometro 'zoragarri' horiek izan duten eragin sozio-ekonomikoaz maiz mintzatu zaizkigu adituak. Egun bestalako eraginez mintzo dira.

ASTEKO PERTSONAIK



Nacho Duato
Koreografoa



Jose Maria Aznar
Politikaria

Gayarre Antzokian egon zen joan den astean Nacho Duatok zuzentzen duen Espainiako Dantza Konpainia, eta arrakasta berehalakoa izan zen. Bi egunetako sarrerak bukatu ziren berehala, eta jendeak gozatu egin zuen Duato beraren eta William Forsytheren lanen inguruko koreografiarekin. Nabari da azken urteotan dantzariak konpainia honi eman dion norabidea: dantza garaikidea da orain bertan egiten dena, eta aldaketa traumatiko samarra izan bada ere —grebak, dantzarien protestak, tentsioak—, azkenean egoera onartu samar dagoela diote barrutik. «Dantzariak bere esku dute dantza; nik behar duten arnasa ematea besterik ez dut egiten» adierazi zuen Iruñean Nacho Duatok.

Partido Popularreko burua Iruñean egon zen asteazkenean, UPNko bere koaliziokideekin. Bost ordutan Itoizko urtegia bisitatu zuen, argazkiak atera zituen hautagai askorekin, El Toro jatetxean bazkaldu zuen, eta Miguel Sanzekin batera egin zuen mitin batean parte hartu zuen. Jose Maria Aznarrek azpimarratu zuen UPN eta PPren arteko hitzarmenak indarrean dirauela, osasun onez gainera, eta ukatu egin zuen behin eta berriz, bere bisita horrekin lotuta dagoenik. Halaber, Unión del Pueblo Navarro alderdiak emaitza onak aterako dituela nabarmendu zuen PPko buruzagiak, «nafarrak ez dituztelako nahastuko zenbait ahalegin arinak», Juan Cruz Alliren CDN alderdi berriaz ari zela.

AHAZTU GABE!

JARDUNALDIK



Afrikari buruzko III. Astea izanen da datozen egunetan Iruñean, IPES Elkarte, Mugarik Gabe eta Sodepaz Gobernu Kanpoko Erakundeek antolatuta. Hitzaldi-eztabaidak, guztientzat irekiak, eta mintegia izanen dira, azkeneko hau matrikula egiten dutenentzat soilik. Lau gai nagusi eztabaidatuko dira, bai hitzaldietan bai mintegietan, maila ezberdinetan, noski. 'Afrikako Estatuak: indarkeria, neokolonialismoa edo demokrazia' gaia izanen da astelehenean ezbaian izanen dena, David Alcoy Bartzelonako Ikasketa Afrikarren Zentroko kideak zuzendurik. Asteartean, 'Konfiskatutako ekonomia eta arauz kanpoko irtenbideak' landuko da, Antonio Santamaria Madrilko Ikasketa Afrikarren Zentroko kidearen eskutik. 'Gizarte mugimenduak eta burujabetza Afrikan' asteazkenean eztabaidatuko da, Gustau Nerin Bartzelonako Ikasketa Afrikarren Zentroko kideak eskainita, eta azkenik, ostegunean, 'Afrikako kulturak eta nortasunak tradizioa eta modernitatea' izanen da gaia, Sepa Bonaba Edmundo, Etane taldeko soziologoak zuzenduta. Mintzaldiak Mikael zinemari izanen dira, arratsaldeko 8etan, eta mintegia IPES Elkartearen, 5etatik 7.30etara.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROKIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Altsasu

Mendigoizale gazteentzat martxa

ALTSASU

Haur Martxa Erregulatua antolatu du igande honetarako, hilak 7, Sakanako Mendigoizaleak taldeak, Altsasutik hasi eta bertan bukatuta inguruko paraje ederrak bisitatzeko. Irteera kontrola goizeko zortzietan paratuko da Mendigoizaleak taldearen egoitzan, eta martxak hiru ordu t'erdi inguru iraungo du.

Martxa erregulatuta deitzen zaio partaideen martxa neurtzeko ibilbidearen zehar kontrolak dauzkanari. Aşmoa ez da, alabaina, kontralatzea, ongi ibiltzen irakastea baizik. Horretarako antolatzaileek aurretik neurtuta daukate ondoren zehaztuko dituzten puntuak, eta talde bakoitzari abiadura kontrolatu ahal zaio, jakin ahal izateko gehiegizko abiadura, egokia edo oso motela eraman duen. «Azken finean helburua da haurrek ikas dezatela ibiltzen modu egokian», azaldu dute antolatzaileek.

Ibilbideak Altsasun izango du irteera, eta San Pedroko inguruetatik zehar, Urdiaingo igeritokietara helduko dira partaideak, Aitziberko baselizaren ondoan. Handik, Saraben zehar—Urdiaingo eta Altsasu bitartean dagoen parajerik ezezaguna eta ederrenetarikoa—berrituz itzuli-



14 urte beherakoentzat antolatu da martxa.

ko dira mendigoizaleak Urdiaingo igeritokietara, eta Uletxetik hasierako tokira, Altsasura.

Antolatzaileek neurtutakoaren arabera, hiru ordu t'erdi inguru beharko dira ibilbidea egiteko, Urdiaingo igeritokietan egin beharko den hamaiketarako dauden hogeitun minutuak barne. Partaideak 14 urtetik beherakoak

izango dira, eta hiru eta bost partaide bitarteko taldeak osatu beharko dituzte. Gurutze Gorriaren postuak izango dira ibilbidean. Ordu bietan sariak emango dira, eta mendiko materiala zozketatuko da. Helduendako bazkaria prestatu da, 1.500 pezetan.

Ibilbidea zabalik dago partaide ororendako, baina Sakanako

koek autobusa izango dute dohainik, Mankomunitateak paratuta. Edozein kontsultatarako 56 36 16 telefonora hots egitea beterik ez dago. Duda-mudatan dabilenari gogoratzea besterik ez Altsasun Maiatzeko Gurutzea dela igandean, eta artisau erakusketak eta hainbat ekitaldi daukela antolatuta.

Baigorri

LUTXI FOURCADE



Nafarroaren Eguna heldua

Aspaldiko partez eguzkiak agurtu egin zituen Nafarroaren Eguna ospatzera Baigorri bildu zirenak, eta egun arrakastatsua izan zen joan den igandekoa, Nafarroaren Eguna heldutasunera heldu den seinale. Basaizea elkarteko kide batek azaldu zuenez, hamazazpigarren urte honetan helburuak hurbilago daude, «egun gazteek segitu dutelako aitzinekoek jorrotutako bidea». «Nafarrak bizi direno Nafarroa biziko da» gogorarazi zuten antolatzaileek.

Iruña

Euskal mitologiari buruz ikastaroa GITEn

IRUÑA

'Euskal Mitologia historiaurrean' izeneko ikastaroa antolatu du GITE Elkartek Arturo Kampion euskaltegiarekin batera maiatzeko. Emeterio Sorazuren eskutik, kultura materiala eta erlijiosoa, euskal historiaurrea, hierofaniza, arbasoen erlijiosuna, mitoen muina eta abarreko gai interesgarrien esanahia azalduko dira hiru egunetan, goizez.

Europar izan diren eta diren kultura aberatsen oinarriak ezagutzeko biderik zuzen eta egokienetarikoa bat euskal mitologiaren murgiltzea omen da. Euskal mitologiak zer garen, nondikoak, zertarakoak, munduak zer gaituen eta abarreko galderak erantzun bila eginiko ibilaldian euskara izan du bidelagun, eta biak batera aztertzea gure etorkizuna ulertzeko iraganak utziriko hitz sakon ederrak jorratzea izango da. Gai hauen aurkezpena bi eratarik eman ahal izango da: hitzaldi bidez zein diapositibak eskainita, gai bakoitzaren lagungarri.



akabera zena, orain igandean hasiera dena. Aipatu tabernetatik jantokira ehunen bat metro besterik ez dago. Nik, ordea, neure burua parrandatik inoiz baino urrutiago sentitzen dut.

Denborak, halaber, erritmo desberdina eta aldakorra dauka hemen barruan. Egunak motzak dira, oso motzak, eta asteak luzeak, oso luzeak. Egunak zortzi ordu besterik ez ditu hemen: goizeko lau patio orduak, eta arratsaldeko beste laurak hain zuzen. Gainontzeko orduak, siesta dela eta ez dela, Eguzki irratiko agurrak direla eta ez direla, eskuetatik arrapaladan ihes egiten dizute.

Otsailaren 25ean espetxeratu nindutenetik erlatibotasun horretan murgildurik ibili naiz. Kartzelatik EGUNKARIAREN egoitzara dagoen kilometro eskasak tarte kasik infinitoa iruditu zait, eta egunak motzegiak izan dira zutabeak idazten hasteko. Gaur eta hemen, ordea, zutabetxo hemendik aurrera, astero-astero zintzo-zintzo idatziko dudala zin egiten dut.

Dena dela, hemen espazioa eta denbora ezezik, hitz emateak ere nahiko erlatiboak dira...

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Erlatibotasunaren legea

Historiarrien arabera, Einstein ez zen inoiz kartzelan izan. Nik, baina, kontrakoa esan nuke; izan ere, kartzela da espazioaren eta denboraren erlatibotasunaren inguruko teoria garatzeko munduko tokirik aproposena: kartzelan sartu bezain pronto espazioaren eta denboraren erlatibotasunarekin egiten duzu topo.

Esate baterako, kalean ordu-bete ibiltzen ematen baduzu sei kilometro egiten dituzu, Donibanetik Txantrea joaten zara. Hemen, aldiz, patioan gora-behera ordu-bete ttipi-ttapa eman eta gero ez zara tokirik mugitzen, patio bereberean dirauzu.


Kanpoan nintzelarik larunbat gaua Donibane auzoko tabernetan bukatzen nuen maiz. Orain, berriz, kartzelako jantokian igarotzen dut lehen larunbataren

Aurten betetzen da Beran izan ziren Lore Jokoen bigarren ekitaldiaren mendeurrena. Hori dela eta, Berako Euskara Batzordeak, herriko Kultur Batzordearekin, urtebetetzea ospatuko du ekainean, literatur lehiaketa eta haurrentzako ekitaldiak barne. Abuztuan Antoine d'Abbadieren bizitzari buruzko erakusketa zabalduko da.

Ehun urteren ondoren Lore Jokoak Beran

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Euskara batzordekoek aurten berpiztu den aspaldiko ekitaldi honen barruan berebiziko garrantzia eman nahi izan diote literatur lehiaketari. Lehengo ekitaldien oinarri zen oraingoan ere protagonismo handia izango du eta... eta ehun urte igaro dira izenburupean narratiba eta olerki sariak paratu dira. Sarien banaketa ekainaren 18an egingo da Beran eta egun berean 'Zazpi eskale' bertso-musika taldearen emankizuna eta Lamixine Berako antzerki taldearen lan bat taularatuko da. Aureko egunean, hilaren 17an, haurrentzako eguna antolatu da. Hasieran, ipuin bat harturik, tailerrak eta gai baten inguruko ekitaldiak antolatu nahi izan ziren, baina datak oso aproposak ez izanik —ikastetxetan lanez estu aritzen dira garai hauetan—, seguruenik liburu erraldoi bat egingo da, haurren artean idazmena eta irakurmena bultzatzeko. Nolanahi ere, ekitaldiak zehazteke daude oraindik, azken ukituen esperoan. Halaber, Berako jaiekin batera, Hendaia (Lapurdi) Abadiako Adiskideak elkarteak prestatutako Antoine d'Abbadieren bizitzari buruzko erakusketa ikusi ahal izango da. Zehaztuta dagoena aurrekontua da: 1.830.000 pezetakoa. Principe de Viana erakundeak 800.000 pezeta eman ditu, eta Berako Udalak 400.000.



Antoine d'Abbadieren garaiko argazkia.

ABADIAKO ADISKIDEAK

1880-KO 'EUSKAL BESTAK'

1895eko edizioa hartu du Euskara Batzordeak hungarren urtea ospatzeko, baina 1880an 'Euskal Bestak' izenarekin egin ziren ekitaldiak ez ziren, inolaz ere, munta gutxiago koak izan, egitura eta izpiritu beretsukoak baizik. 'Euskara' aldizkariak artikulu luze askoa atera zuen orduko edizioari buruz eta, zehaztasun guztiz, bertan bizi ahal izan zen giroa ederki jasoa dago. Abuztuko 4 eta 5ean ospatu ziren, bertako jaiekin batera, eta lehen ekitaldia Euskal Jaie 'Batzordeari egin zitzaion harrera ofiziala izan zen. «Familarren aurretik bandera espainiara zegoen, alde batean 'Biba euskaldunak' eta bestean 'Biak-bat' leloak —herria osatzen duten Bera eta Alzate auzoengatik— zituela». Bazkariaren ondotik elkarteak antolatutako lehiaketa literarioaren epaia irakurri zuten, eta Hemilio Olorizen eta Arturo Kanpionen erdarazko zein euskarazko olerkiak irakurri ziren.

Lehiaketak bi gai zituen, lehiaketetan ohi zen bezala: 'Konstituzioa eta Nafarroako Korteen garrantzia', eta 'Euskaldunak Navasetako gudan', eta ez zuten arrakasta handirik izan, Arturo Kanpion epaimahaiko idazkariak izpepetutako aktak azaltzen duenez, aurkeztutako lanen artean ez zegoelako lehen saria mereziko zuenik. Lehen gaierekin lotutako lanek ez zen aurkez-

tu eta gainontzekoek ez zituzten gutxienezko eskakizunak betetzen. Hori dela eta, sariak eman zitzaizkien Felipe Arrese Beitiari 'Euskeldun baten gogoraziñoak' eta 'Gizonaren zorigacha' lanengatik, Agustin Etxeberri saratarri 'Deserturra' lanengatik, eta Ramon Artola donostiarrari, 'Bildochoa eta otsoa' eta 'Ghomin Iruchuloetarra' idazkiengatik. Epaia Batzar Orokorren onepenen zain utzi zuen elkarteak, «lehiaketaren ezohizko ezaugarriak direla eta».


Gutxiengoarendako lehiaketa batek gehiengoak gogoz onarturiko beste bati utzi zion tokia. Hiruretan jendez mukuruz zegoen herriko plaza, elkarteak antolatutako bertso lehiaketaren zain. Asteasuko Pedro Jose Elizegi eta bere anai Juan Cruz zeuden aurrez aurre, norgehiagoka. Laurogei pezata zeuden bien artean banatzeak. Kronikak dioenez, 45 minutu iraun zuen saioak, eta denbora horretan zortzi lerroko 36na bertso kantatu zituzten bi anaiak, «zegoen jende antzaren atsegingarri».

Lauretan hasi zen antzaren jokoak, herriko plazan, eta ondoren Alzateko auzoan ere berriz izan zen. Garai hartan jada baziren eztabaidak lehen ohizkoa eta

D'Abbadieren iturria

A.B. / IRUNEA

Antoine Thompson d'Abbadie Dublinen (Irlanda) jaio zen 1810ean. Aita zuberotarra zuen (Ürrüxtokoa), eta ama irlandarra. Hiru urte zituela Frantziara (Toulouse) joan zen familiarekin, eta ikasketak han egin, fisika hautatu zuen espezialitate. Hogeita bost urterekin hasi zituen bizitza osoan zehar maiz egingo zituen bidaiak. Brasilera hasieran, Etiopia eta Egiptora ondoren Arnaud Michel bere anaiarekin, bertan egon zen 1848ra arte, lan geologiko garrantzitsua eginen —900 puntu geodesiko ezarri zituen—. 1849an Euskal Herrira heldu zen, eta Hendaia Abbadia bere etxaldean laketu zen. Etiopian egindako lanari



gaur egun urria den joko klase honi buruz. Kronistaren hitzetatik antzeman daiteke, herrian oso sustraitua egon arren, bazegoela kentearen aldeko jarrera eta irizti zabal bat. «(...) gustu genuke lehen bait lehen eta erabat gure herrietako bestetatik desagertuko balitz, ohituretatik kanpo dagoelako, eta denok zabaldu behar ditugun animaliekiko erruki eta ontasun sentimenduen aurka duelako. Herri erakundeek eta eragina duten pertsonen dagokie ohiturak giza geroak erakartzea, eta haiek egin behar dute beren esku dagoen guztia hau bezalako ekitaldien partez beste ohiturak zabaltzeko(...)».

Arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan berrin prest zeuden kantatzeko Elizegi anaiak, eta saioa aurrenekoa baino hobea izan omen zen. Hamabost minututan 31 bertso osatu zituzten bien artean, eta euskaldunen arteko bereizketak, Euskal Herriko batasuna eta euskararen geroa izan zuten hizpide. Kronistak egiten duen kalkularen arabera, 14,5 lerroko bertso bat bota zuten minutuko. «Horrela ulertzen ahal da bertsolari jorioi eta beren ezipainetatik ateratzen diren ideiei jarraitzeko dagoen zailtasun gaindiezina, ezta takigrafia edo estenografiaren artearen bidez ere konpondu ezin daitekeen».

kundeak, Darrigol, Bonaparte printzea, Intxauspe, Duvoisin, Kanpion, Jose Manteola, Pierre Loiti eta, oro har, garai hartako euskal zale orok edan zuten d'Abbadiek zabalduzko iturri hartatik. Ez zen izan Euskal Herriko adibide berezkoa, Katalunian ere 1859an hasi baitziren Lore Jokoak, baina 1897an Carmelo Etxegaraiak zehatu zuenez, hainbat ezberdintasun nabarmenak ziren bi adibideon artean. D'Abbadiek antolatutako Euskal Bestak konplexuak ziren, euskal kulturaren arlo franko osatzen baitzuten ekitaldiak: txistularien dianak, meza nagusia, pilota partiduak, herri bazkaria, bertsolariak, kirolak, ganadu eta nekazaritza lehiaketak eta literatur lehiaketak.

na». Eguneko jaiak dantzaldi batekin amaitu ziren.

Hurrengo egunerako antolatuta zeuden ekitaldi gehienak bertan behera utzi behar izan zituzten, eguraldia kaskartu egin baitzen arraso. Segalarren apustua zegoen antolatuta, eta baita joko-garbiaren partidua ere. Lehena ez zen egin, eta pilota partidua hasi bazen ere, zenbait jokatutako eta utzi egin zuten. Bertara aurkeztu zirelan, alde batetik, Jose Etxeberria 'Baztan' Narbarteakoa, Jose Mari Fagoaga 'Harroxo' eta Jose Joaquin Valcarlos beratarak, eta Serapio Larregi Lesakako albaiaria; beste aldeetik Martin Taberna, Jose Larrauz, Mariano Sanchez eta Manuel Oiarzabal donezabarrak egon ziren. Esan bezala, euriak ez zuten jarraitzeko aukerarik utzi, eta 125 pezetako saria banatu egin zen jokalarien artean. Arratsaldean txistularien lehiaketa egin zen, eta Martin Sansierola, Pierre Loiti eta, oro har, garai hartako euskal zale orok edan zuten d'Abbadiek zabalduzko iturri hartatik.

Ondoren Zubiri kantariaren errezitak izan zen, eta 'Trapubiltzaleak' edo 'Adiyo Euskal Erriari' kantak abestu zituen gitarra laguntzaz, eta baita 'Guernicaco-arbola' ere. Ekitaldiak bukatzeko Arturo Kanpionek 'Azken agurrak Ama euskeriari' Elizondoren saritutako lana errezitatu zuen.

ANTOINE D'ABBADIE BERAN

1895ean egunkoak abuztueren 3tik 5era iraun zuen, «Berari eta bere taldeari harrera egin zitzaion goizean, bertan udala, bordon-dantzariak, Irungo banda eta herritarrek zi-

Hendaia Abadia jauregia, Antoine d'Abbadieren etxebizitza.

ABADIAKO ADISKIDEAK

rela, eta udaletxean festa batzordeak antolatutako literatur lehiaketaren lanen epaia irakurri zen. Kasu honetan ere ez zen sari nagusirik izan, aurkeztutako lanek ez zuten-eta eskatutako baldintzak betetzen. Madalen Larralde zen orduko gaia. 35 urte zituela Beran irule zen saratar hau nahiko ezezaguna zen arren, batzuek zioren erlijio arazoengatik hil zutela Frantziara. Beste batzuek, alde egin zuela eta Berara etorri zela bizitzera. Arturo Kanpionek idazki bat plazaratu zuen berari buruz, 'Laraldeko Lorea' izenarekin. Nahiz eta sari nagusirik ez izan, epaimahaik Lopez Alen jaunaren 'Aingeru bat geiago' lana sarizatu zuen.

Ondoren, dantza jaialdia izan zen, bordon-dantza eta dantza-luzearekin, eta su-festak. Hurrengo egunean pilota partiduak eta txistulariak izan ziren herrian, eta herriko haurrek, praktuk gisa jantzita, makil-dantza, ezpata-dantza, zinta-dantza eta auresku dantza zuten. Haur talde batek d'Abbadie agurtu zuen gisa horretan: «Bedorren baimenarekin: Bera-ko aur txiki dantzariyak ematen diyote ongi etorriya gure errirar, on Antonio Abbadie-ko, Subernotar, euskal zale argi ta jakintzu gañ ganeke jaunari, ta bidez, ta biyotz biyotzetik Jaungoikuari eskatzen diogu, lendabiziko aldiyan ikusten degun bezela, berriz ere poz au izaten lagun dakigula». Bertsolarien txanda izan zen ondorengoa, eta Juan Jose Lujanbio errenteriarra nagusitu zen orduan, Juan Cruz Elizegiren aurretik.

Emakumeen historia: erdi ezezaguna

«Ni berarentzat atsegin iturri bat naiz, erizain bat, altzaritegiko pieza bat, emakume bat; ez besterik» Sofia Tolstoi, 1844-1919 'Egunerokoa', 1860-1891 Sara Ojinagari, beste historia batzuk aurkitzen eta kontatzen tematutako adiskideari.

Historia, jendearentzat zenbaitetan hain aspergarria den zientzia hori, eskolan gure jakinmina apenas pizten zuena, beti hartu izan da gertaera aipagarri, gudaldi gogoangarri, errege, printze eta jaun ongile, gerra amaitezin eta inoiz ezin gogoratu genituen baiken zerrendatzen. Historia, antzinatek bertatik prostituitutako dama zahar hori, andre izenez baitaiaitua —Clio— beti idatzi izan da begi maskulinoen begirada zehar-tuaren argitan. Protagonistak, izar gonbidatuak eta zientzia honetako distiratsuek beti izan dira gizonak —eta gizonak diot jeneroak mugatuak adieran—. Emakumeek bigarren mailako rola eman zaizkie, gutxitan agertzen dira ez eszenan eta egitekotan ere atzeko atetik agertzen dira, hanka-puntetan, beren berezitasuna ezkatuz, ikusteaz.

Horrela, historiaren erakus-tokia gizonentzako gordea egon da, nahiz eta emakumeek drama historikoaren justu-justu erdiaren ko-protagonista izan diren. Historia gizonen analizatu dute, gizonen ikertu, gizonen idatzi eta kontatu; jakina, euren, sinesgarritasun bermedun sujetu historiko bakarrek, kontatzea komenigarri ikusi dutenaren arabera. Horrela sortu da historia bat beste erdia falta duena, erdi ezezaguna, isildua, gordea. Artxiobotan isiltasunera kondenaturiko giza-ateria erdiaren oihartzuna antzematen da. Emakumeak ez dira sujetu historiko izan zientzia horrentzat; beraz, ez dira ezagutza-



sujetu iraultzailetzat, aldatzaitzat, errealtate sozial eta kulturalen —are gutxiago politiko— eraldatuko ihardukitzailetzat. Emakume 'garrantzitsuak' izan direnean, normalean izan dira zeregin eta rol maskulinoak bete dituztelako, edo gizonen beraiengandik espero zutena egin dutelako, edo besterik gabe gizonen utzi dietelako haiek izandaturiko espazio publikoak betetzen. Nafarroaren ibilbide historikoak beti isildu egin du emakumeen adierazpena. Oraindik ere etxetzarek badituzte sotoa eta ganbara. Bada, emakumeak, beti ganbaran egon da; gutxitan ailegatzatzen den toki horretan, historiako leku isil eta ba-

kartienean. Adibide gehiago: oraindik ere Eliza Katolikoak zokoratutik egotera kondentzen ditu, jardun erlijiosoaren ganbaran zigorturik.

Emakumeak izan dira —oraindik ere hala dira— noizean behin azaleratzen den parte ikusteaz inoiz, nahiz eta munduko biztanleriaren erdia baino gehiago izan. Historia maskulinoa bada, halaber da maskulinoa espazioaren ulerkera, bizi-eritimoena, erabakiena, denborarena, azken batean historiako gertaerena. Iraganik gabeko erdia dira. Era horretan, historiaren, harremanen eta bilakaera historikoaren ikuspegi androzentrikoa osatu da; ondorioz, zientzia domestikatua, partzializatua, gizonaren neurriera egina lortu da. Andreez, gizonen transmititu nahi izan dutena jakiten da, ez besterik.

Baina emakumeen esperientzia historian zehar ez da zerbait independentea gizonen historiatik; berezia ez, ezberdina bai. Emakumeen ibili historikoa paraleloa da eta hala eta guztiz ere ez da berdina, emakumeena berena da jeneroaren alde. Horrek ez du esan nahi historia ezberdindu bat egin behar denik, ez baita problematika ezberdina. Historia kontzeptu da gizakien historia orokor bezala eta horrek planteatzen digu historia bat beste sexuaren 'beain orokorra'. Baina bada gehiago ere. Historiak ez ditu berdintasunean hartu gizonak. Beraz, planteatzen den gizonen premisa batetik abiatzen da: emakumeek ere ez dute denek historia bat eta bera. Badira ezberdintasunak, eta izan dira, gizonen eta emakumeen historiaren artean, hala nola izan baitira diferentziak eta berdintasun ezak emakumeen esperientzia historikoaren artean. Orain, kontua da bi erdiak elkartzea, haustura konpontzea historia erreala-koak kontatzeko.

Musikaz gutxi

Galdera: Argazki-dendara sartu eta horra hor nire gaztaroko neska liraina ikusten dudana, zilarrezko portarretratos batean, zahar zakar batekin ezkontzen den egunean. Bere begirada xarmanta ez du galdu, denbora gora-behera. Dendariak jainnahiz galdetzen dit ea ezagutzen dudana neska hori, herriko jauntxoarekin ezkontu den neska ederra, eta nik tutik ere esan gabe, nire argazkiak jaso.

—Zubi Eroria deitzen diot nik neska hori— diot nik dendariari—, nire biziak krak egin baitzuen zubi horretan. Ameriketara joan nintzen eta aberasten nintzen harekin ezkontu ahal izateko. Baina, ez aberastu eta berandu ailegatu.

Gizonak, hunkituta, argazki roilo bat erregalatu nahi dit, eta munduan askoz ere neska gehiago dela gogorazten dit. —Bai—, esaten diot nik— baina Zubi Eroria bezalakorik ez. Medikua jauna, egoera triste honetan, osasungarria al da Pochen azken diska egunean bospasei mila aldiz aditzea?

Erantzuna: Nik musikaz ez dakit ja ere. Dena bere neurrian ona da, neurritz kanpo txarra. Hala ere arau hau erabiliz edozein gauza da ona, afera da neurria.

Galdera: Ni New Orleansko tabernarik zikinenetan ibilia naiz atezain. Askotan drogaz pagatzen ziguten, besteetan neskaz. Noiz behinka diruz, eta hilabetean behin hirurekin batera, eta hori loria bera zen. Orain nomina bat kobratzen dut, hilaeren hasieran, eta jakina, horrek ez du inongo misteriorik, eta pentsatzen hasia naiz ari naizela zahartzen, biziak ez duela lehen zuen nabala dirdira hura, eta gau guziak bizitzen genituen hondarrak balira bezala, beti ere. Medikua jauna, egoera triste honetan, osasungarria al da Jean Michel Jacen azken diska bospasei mila aldiz aditzea?

Erantzuna: Gorago esan bezala, musikaz ez dakit ja ere. Ziur aski ez.

Galdera: Emagalduek eta



«Ameriketara joan nintzen ea aberasten nintzen harekin ezkontu ahal izateko. Baina, ez aberastu eta berandu ailegatu».

ostalariak ohitura bera daukate. Biek baso berean ematen diete zerbitzua onari zein gaixtoari. Ni bihotz onekoa naiz, hori behintzat dio nere amak. Putetxe baten neskaekin maitemindu nintzen, eta egunak etorri egunak joan, denbora ez da pasatzen haren ondoan. Pozik eta konformidadean bizi naiz. Bisky eskoziar baten errepresentazioa daukat Kantauri kostalerako, gainera. Medikua jauna, egoera zoriontsu honetan, osasungarria al da egunean mila aldiz neska honekin bere sorerriko kantak aditzea eta dantzatzea? Esate baterako: Lisak dio (Lisa says) hau bezalako gau batean (on a night like this), musu bat emango bazenit (if you give a kiss), polit-polita litzatekeela (be so nice), eta Lisak dio irriño txiki batengatik (and Lisa says for just one little smile), ezarriko



'Granvillen-n iruditzen euskal erretratuak' liburuko ilustrazio bat.

«Pentsatzen hasia naiz ari naizela zahartzen, biziak ez duela lehen zuen nabala dizdira hura, gau guziak bizitzen genituen hondarrak balira bezala».

nintzatekeela zure ondoan, Lisak dio, Lisak dio (I'll sit next to you, Lisa says, Lisa says). Bere herriko talderik famatuena The Velvet Underground da eta goikoa haiena da.

Erantzuna: Nik musikaz ja ere. Hala ere bere herrixkaren musika baldin bada, eta neskari kanpaidorreen kultura gustatzen baldin bazaio, onartu egin behar.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Dantza euskal literaturan (I)

Larramendi lehen folklorista bezala dagerkigu, Iztuetari aurre hartu ziolarik



François Marie Arouet Voltaire bezala ezagunagoa zen pentsalari frantsesak 1764. urteko bere *Comptes philosophiques* lan mardulean euskaldunak Pirinio bortuetako bi aldeetan dantzan aritzen den herria dela argikiro plazaratu zion Europa osoari. Eta ez da gutxiagorako. Badituela bi aste eskax, nonbait poxi bat bederen zemaite talde handinahik boikotaturiko Nafarroako dantzari eguna egin zela ospatu. Bertan 700 gorako dantzari bildu zen non eta Tuteran batean. Esanak esan ere estonatzeko. Igande honetan berriro ere Euskal Herri guzietako egun beretsua dugu ospagai Gipuzkoako Oñati bizkai herri gardenetan. Proporzioak zuzenak badira behintzat, gutxienez 120 taldeetako 5.000 dantzari aisa elkarkide iharduko du ikurrinaren azpian Agintarie-nean. Beste horrenbestek Larrain Dantzaren korapilo laberintikoan, Lizarrakoei laidozkagarri paira arren.

Euskaldunak dantzarekiko erakuts grina berezi honek ere badu bere islada literaturan, bere fruituak. Nork ez du bestenaz Iztuetak laurkitu lan gerruntzetuaren berri noiz edo noiz aditu? Nork ez du irriparre maltzur ixila barneratu Frai Bartolome karmeldarraren liburuak izenburuzat eskeintzen duen ele errenkada arraildua irakurtzen hasterakoan? Alabaina, bi izen hauek baino aunitzez gehiago badira dantza bera gaitzat aukeran izan duten euskal izkiriataleak.

Manuel Larramendi Leizotz bailarako Garagorri izeneko baserri andoaindarraren sortua dugu 1690. urteko abenduaren 24. batean. Lagundiko kide sonatu honek, beste-lako lan ospetsuez gainera, esaterako 1745. urteko bere *Diccionario trilingüe*, bazuen idatzi 1882. urtean eta Barcelonan Fidel Fitak argitaratu eraman Loiolako artxibategian zegoen *Coreografía o descripción general de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa*, 1756: urte inguruan txirikordatu bide zuena. Liburu honen hitzaurrean beraxek diosku XVIII. mendeko Gipuzkoako deskribapen hau egitera bultzatu zuen arrazoirik nagusia. 1752. urtean Murillo izeneko beste lagundiko batek *Geografía histórica* ondu zuen, eta Euskal Herria deskribatu zuenean, garaioko aztura arruntari jarraikiz herrialdeak oro **vizcaíno** izenez berdintzen ditu. Hau da bereziki andoaindarra aztoratu zuena. Lantxo honekin, bestela, Larramendi lehengo euskal folklorista bezala dagerkigu, Iz-

tuetari aurre hartu ziolarik. Dantza mota guzien zerrenda bat moldatzen du, banan banan beraien berezitasunak erabilerarekin batera emanez. Ondoa, Gipuzkoako dantzen zilegitasuna aldarrikatzen du lau kapituloetan, dantzen aurka zeuden misiolari latz ertsiei arrazoiak azalduz.

Hauetariko misionista bat, 1708. urtean Oartzunen sortu Sebastian Manuel Mendiburu Olanu dugu, noiz edo noiz euskal Cicerotzat jo izan dena. Lagundian 1725. urtean sartu, eta bere ikasketak burutu ostean, Iruñera etorri zen bere lan izpirituala burutzera. Bertan 30 urte eman zituen, Nafarroako herri euskaldun aunitzetan misioak burutu zituelarik uda partean. Berari esker Jesusen bihotzari debozioa zabaldu zen eta hamaika kongregazio sortu zituen kulto honetarako. Aipatu misioen ezaugarri errepikakor bat dantzeen aurkako saiorena daukagu. Askotan Mendiburuk dantzak kentzeko promesa eskatzen zion herriari, eta badaezpada ere, udalaren aldetik dantza galerazteko akordioa lortzen ahalegintzen zen. Horrelako zerbait gertatu zen Azkoitian eta Azpeitian 1746. urtean, edo Ordizian eta Lazkaon 1747. ean.

Bere dotrina garbiki azaldu omen zuen jada galdurik dagoen idazki honetan: *Christau dotrin edo catecismo lucea*. Hiru tomatan egina zegoen eta 700 horrialde baino gehiago bazituen. Ezezaguna den arrazoirien batengatik, eskuizkribua desagertua da eta egun ez da horren aztarna edo arrastorik geratzen. Ordian Probintzi burua zen Idiakez aita, Loiolako erretorea zen aita Bermejori 1764. urtean igorritu gutun batetan honela mintzo zaio: '*Al P. Sebastian de Mendiburu le he ordenado remita a Vd. zieta obra en vasuence que quiere dar a la imprenta. Luego que Vd. la reciba, estará con los padres Larramendi y Cardaberaz, a quienes suplicará en mi nombre tomen el trabajo de releerla*'. Kardaberaz oso lanpeturik zegoelako edo, ez zuen lan hau burutu, eta Mañerukoaren Aita Alustiza batek bete behar izan zuen eginbide hori. Alustizaren eritzia guziz aldekoa izan zen, baina Larramendirena etzen bat etortzen puntu batetan, dantzarenean alegia. Hiztegigileak egin zensuran horrela adierazten dio: '*Puede imprimirse la obra, dejando lo que trae de las danzas, pero no puede imprimirse con ellos*'. (Jarraitzeko)




■ Nafarroako Emakumezko Txapelketako 4. jardunaldiko partida, 1995ko apirilaren 20an jokatu.

Esther Padilla (Lizarran)-Maria Martinez (Iruñea).
1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,a6; 4.Aa4,Zf6; 5.0-0,b5; 6.Ab3,Ac5; 7.Ge1,d6; 8.c3,Ag4; 9.d3,h6; 10.bZ-d2. 'Ae3' jokaldiak arnasa gehiago ekartzen zuen. 10...0-0; 11.Zf1,Ae6; 12.Ac2,Ge8; 13.d4,d4; 14.d4,Ab4; 15.Ad2,Ad2; 16.Dd2,Ag4; 17.Zh4. Zaldiari irteera emateko askoz hobeto zen 'Dc3'. 17...Zh5; 18.Zf5,Af5; 19.f5. Peoi hau ez da ongi geratu, aurreko jokaldiaren ondorioz. 19...Zf6; 20.Zg3,Dd7; 21.Ze4,Ze4; 22.Ae4,d5; 23.Ac2,Dd6; 24.a3,Df6. Ikus koadroa. Txuriek 'eG-d1' jokaldia

eginen balute, beltzek 'Gd7' jokatuz zutabea hartuko lukete, eta arriskua sortu ere.

25.Ge8 xa,Ge8. 'Gd1' ez da ona. Zaldiak harrapatuko luke peoia, gazteluak matea mehatxatzen duelako. 'Dc3' ere ez da nahikoa peoia salbatzeko (Zd4,Zf5). 26.h3,Dd4; 27.Dd4,Zd4; 28.Ad3,Ze2 xa; 29.Ae2. Aldaketa desegokia. Alfilarren abiadurak erresistentziarako aukera gehiago ematen zuen. 29...Ge2; 30.b5,c5; 31.Gd1,b4; 32.b4,Ge4; 33.Gd5,Gb4; 34.Ef1,a5; 35.Ee2,Gb2 xa; 36.Ed3,a4; 37.Ec3,a3; 38.Gd1,b4 xa; 39.Ec4,a2; 40.Gd8 xa, Eh7; 41.Ga8,b3. Txuriek partida utzi zuten. Zehatza ez den jokaldiak holako ordaina izan dezake. ■



Joan den irailean bildu ziren Hondarribian zerga eragozleak, azken batzarra egiteko. Duela hamabi urte hasi zen mugimendua, antimilitarismoa bultzatu eta beste erakundeei diruz laguntzeko. Azken urteotan, zerga eragozleen kopuruak gora egin du nabarmen Nafarroan, eta iaz milioi bat pasatxo pezeta kendu zitzaion Espainiako Armadari, Mugarik Gabe, Amnesty International eta beste zenbait erakunderi emateko.

Zergei ere kontzientzi eragozpena

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Errenta aitortpenaren kanpainarekin batera, zerga eragozpeneko kanpaina ere martxan jarri da Nafarroan, beste hainbat tokitan bezala. Orain dela hamabi urte jaio zen zerga eragozpenaren mugimendua eta, egun, mundu osoan zehar zabalduta. Nafarroa edo Euskal Herriaz gain, Mendebaldeko Europa osoan, Estatu Batuetan, Kanadan, Japonian, Australian eta Hego Afrikan badira zerga eragozleak. Guztien helburua, ordea, bera da: gastu militarrei kontzientzi eragozpena egitea, armadari sosik ez ematea, azken finean. Eta nola? Errenta aitortpena egiterakoan, armadari dagokion dirua beste edozein erakunderi emanez. Nazioarteko eragozleak, halaber, bi urtetik behin biltzen dira eta azken bileran, bosgarrena hain zuzen ere, Hondarribian egin zuten iazko irailean, Zerga Eragozpenaren eta Bake Zergen Aldeko Kanpainaren V. Nazioarteko Mintzaldia izenburupean.

Juanjo Moreno Iruñeko Zerga Eragozpeneko Taldeko kidea da eta mugimendua honen sorrera eta garapenez mintzatu da egunkari honenekin. Erran bezala, orain hamabi urte sortu zen zerga eragozpena eta orduan, egun bezala, bi helburu ziren funtsezko mugimendua honentzat: antimilitarismoa indartu eta bultzatu eta, era berean, «garrantzitsu eta baliagarriak diren erakunde guzti horiei gure laguntza osoa eskaini».

Zerga eragozle bakoitzak erabaki dezake armadari ematen ez dion diru hori zein erakunderi ematen dion eta aukera, egia erran, zabala da. Hala ere, zerga eragozpeneko talde eta biltzarrek euren proposamenak egiten dituzte entzun nahi dituen orontzat. Aurten, hain zuzen ere, Guatemalako Alargunen Koordinakundea (Conavigua) eta Beltzezko Emakumeak dira proposatutako taldeak. Lehengoak kontzientzi eragozpe-

naren alde eta derrigorrezko soldadutzaren aurka kanpaina antolatuta du eta Beltzezko Emakumeak Serbiako taldeak, berriz, antimilitarismoa bultzatu eta Serbiako desertoreei eskaintzen die laguntza. Zerga eragozpenaren bidez armadari ukatzen zaion diru hori nora doan, hala ere, ez da garrantzitsua Juanjo Morenoren ustez —nahiz eta egun dauden hainbat arazo jakinarazteko balio duen—, «garrantzitsua zerga eragozpena antimilitarismoa bultzatzeko tresnatzat erabiltzea da». Zerga eragozpeneko taldeek ere kopuru jakina proposatzen dute azken urteotan eragozpena egiteko. Aurten, 7.000 pezetakoa da proposamen hau.


Zerga eragozpena egin zen lehen urteetan, hamar bat lagun baino ez ziren eragozle; gaur egun, ordea, 300 bat zerga eragozle dago Nafarroan eta mila inguru, berriz, Euskal Herri osoan. Hala ere, nahiz eta urtetik urtera pixkanaka-pixkanaka eragozle kopurua igo, ezin erran daiteke zerga eragozpenak jarraitzaile ugari duenik atzetik. Morenorentzat honen arrazoiak simplea da: «Guztiak dira Hazien daren beldur». Bere ustez, ordea, arrisku guztiak onartu egin behar dira eta beldurra ahaztu. Morenoren aburuz, halaber, «halako mugimendua poliki-poliki hazten dira eta hezkuntza arloan egiten den lana da garrantzitsua».

Zerga eragozpena 1983. urtean sortu zen mugimendua dugu, erran bezala, eta orduz geroztik 46 milioi pezeta inguru desbideratu dira armadaren aurrekontuetatik. Espainiako Defentsa Ministerioaren aurrekontua 1995erako, ordea, 866.499 milioi pezetakoa da eta diru horri, beste ministerio batzuetan agertzen diren gastuak gehituz gero, bilioi bat pezetara igo daiteke aurrekontua zerga eragozpeneko taldeen arabera.



Aurten zazpi mila pezeta ematea proposatu dute zerga eragozleek.

ZERGA ERAGOZPENAREN BIDEZ DESBIDERATUTAKO DIRUA NAFARROAN



Nazioarteko elkartasuna

E.E. / IRUNEA

■ Zerga eragozpeneko taldeen helburua, armadari ukatzen zaion diruaren bidez, «benetako balio eta garrantzia duten proiektuei» laguntza ematea da, Juanjo Morenok azaldu duen legez. Orain arte mota ezberdinetako talde ugari jaso du eragozleen laguntza. Nikaraguako eta Saharako eskolak, Eritreko eta Lesothoko osasun trebakuntzarako proiektuak, Ekuadoreko amerindiar taldeak, Filipinetako feministak, Anchurasko eta El Telenoko tiro zelaien kontrako borroka eta beste hainbat proiektu dira horietako batzuk. Iruñeko Zerga Eragozpeneko Taldearen arabera, «horiek eta beste askok erakusten dute beste defentsa mota bat badagoela».

Iaz Nafarroan zerga eragozpenaren bidez dirua jaso zuten elkarre, proiektu edo erakundeak ugari izan ziren, eta mota askotakoak gainera. Grafikoan agerian bezala, 235 eragozle izan ziren iaz Nafarroan eta milioi bat pezeta baino gehiago desbideratu zuten armadaren aurrekontuetatik. Eragozleen dirua jaso zuten erakunde edo elkarten artean, Nafarroako SOS Arrazakeria, Amnesty International, Insusioaren Aldeko Fondoa, Mugarik Gabe, Greenpeace, LANE, Andrea, Etxabakoizko Eskola-Tailerra, El Salvadorko emakumeentzako ospitalea, Euskalerrria Irratia, KEM, Elkarri, Itoizko Koordinakundea, El Salvadorko Garapenerako Elkarte eta Kroaziako Lagunen Elkarte aipa daitezke, beste guztien artean. Iaz, beraz, erakunde eta talde as-

kok jaso zuten eragozle fiskalen dirua. Gehienek eragozle bakar baten dirua jaso zuten, bost mila pezeta inguru.

Zerga eragozpenaren bidez jasotako dirua eskuratu duten proiektuak, beraz, ikus daitekeen bezala, nazioartekoak dira, nazioartean zabaltzen baita zerga eragozpenaren mugimendua. Aipatu bezala, iazko irailean Hondarribian (Gipuzkoa) egin zen Zerga Eragozpenaren eta Bake Zergen Aldeko kanpainaren V. Nazioarteko Mintzaldia. Irailaren 18an bukatu zen iazko zerga eragozleen biltzarra, guztien artean hitzartutako adierazpenarekin.

Gastu militarrei ez laguntzeko eskubidea aldarrikatu eta gatazken irtenbide baketsuaren aldeko apustua egin zuten Hondarribian bildutakoek.

«Euskara prestijiatu behar dugu»

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Rosa Ramos iruindarra da eta euskal filologian lizentziatua. 1992. urtean, Bergarako Udalak ikertzaile gazteei eskaintzen dien beka irabazi zuen eta, horri esker, euskararen galera eta berreskurapena Nafarroan aztertzeke aukera izan du. Joan den astean, hain zuzen ere, Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako jardunaldietan parte hartu zuen

zioak ere gertatzen ari dira eta hainbat udaletan euskara berreskuratzen hasi da. Zonalde euskaldunetan, azkenik, nahiz eta hiztun kopurua igo, hitz egiteko gaitasuna galdu duten euskaldunzaharren kopurua ere aipagarria da. Beraz, alde batetik irabazten dena, bestetik galtzen da.

EGUNKARIA.— Zonalde euskaldunetan gertatzen ari den fenomeno hori nola azaltzen duzu zuk?

zio edo kultura mailan, euskaraz egin ditzakete bertakoek. Iruñera jotzen dutenean, ordea, horiek edo beste batzuk, erdaraz egin behar dituzte eta horrek mugak eta arazoak sortu eta berreskurapena eta normalizazioa zaildu egiten ditu.

EGUNKARIA.— Normalizazioaren ildoan, zer iritzi duzu Nafarroako Gobernuaren hizkuntz plangintzari buruz?

RAMOS.— Nire ustez, hizkuntz plangintzak giza egoera

RAMOS.— Bai, hala da. Komunikabideen esparruan argi eta garbi ikusten da hori. Komunikabide ofizial edo legal horiek, nolabait erratearren, euskarari lekurik uzten ez diotenez, euskal komunitateak bere bide propioak jorratu ditu. Hor dira, besteak beste, EGUNKARIA bera, ETB ikusi ahal izateko errepikagailuen sarea, aldizkariak, Euskalerrria Irratia, eta abar. Kulturaren alorrean berin gertatzen da, programa oso aberatsak daude baina beti halako bide paralelotan garatzen dira, gizartearen diren komunikabide edo zerbizuetatik urrun.

EGUNKARIA.— Euskararen normalizazioa, beraz, euren esku dago edo zerbait gehiago behar da?

«Iruñeak edo Iruñerriak ez die euskaldun horien beharrei erantzunik ematen, eta Iruñeak behar bezala erantzuten ez badu normalizazioa ez da lortuko».

RAMOS.— Nire ustez, argi dago herri ekimen oso garrantzitsua dela baina Administrazioak ere berebiziko garrantzia du euskararen normalizazio bidean. Bien arteko elkarlana da beharrezkoa, ezin dute elkar baztertu, adostasuna behar dute, helburu amankomuna. Egoera ez da batere lasaia eta akordioak behar dira. Argi dago, era berean, herri ekimenak hurbilen ditugun alorretan izango duela eragin gehaigo. Irakaskuntza eta antzeko beste zereginetan, ordea, Administrazioaren eskuhartzea funtsezkoa da. Oro har, hala ere, hiztunen komunitatea sortu beharra dago eta horrela, euskara bera prestijiatu.

Rosa Ramos

FILOLOGOA



SOSLATA

Txepetxen teoriarekin bat

Bere ikerketak Txepetxen euskararen berreskurapenari buruzko teoriarekin bat egiten duela onartzen du, nahiz eta lan ezberdinak direla azpimarratu. «Argi dago egituratu gabeko euskaldun multzoa dagoela eta hizkuntz komunitatea ez dela oraindik sortu», nabarmentzen du iruindarrak. Txepetxek planteatzen zituen hizkuntzaren funtzioak aztertu ditu Rosa Ramos-ek ikerketan eta, dioenez, nahiz eta zonalde bakan batzuetan lan esparrura ailegatu, leku gehienetan familiaren esparruan gelditzen da euskara. Ramosen ustez, beraz, Txepetxek planteatu zuen hizkuntza minorizatuen azterketa «erabat betetzen da Nafarroan».



JOXE LACALLE

eta bere ikerketan garatu dituen auziak izan zituen mintzagai. Egunkari honekin ere hauetaz guztietaz mintzatu da Rosa Ramos.

EGUNKARIA.— Hizkuntzaren galera eta berreskurapena Nafarroan ikertzeke aukera izan duzu. Ikusitakoa ikusita, zein da zuren ustez euskararen egoera lurralde honetan?

RAMOS.— Nafarroa osoaren egoera kontuan hartuta, balantzea positiboa dela erran dezakegu. Zonalde bakoitzeko errealiterara hurbiltzen bagara, ordea, ezberdintasunak daudela antzematen da. Oro har, Erribera aldean, nahiz eta euskara bultzatzeko ekimenen bat gertatu, berreskurapenik ez da sumatzen. Iruñerria, Tafalla, Lizarra edo Gares aldean, berriz, hutsu-neak badauden arren, erreak-

RAMOS.— Alde batetik, herri txikiak dira bertakoak eta euskararen berreskurapena bultzatzeko baliabide eta bitarteko handirik edo aipagarririk ez dute. Bestalde, Iruñearekiko duten menpekotasuna ere aipatuko nuke nik. Hau da, zonalde euskaldunetan populazio oso barreiatuta dago, ez baitago inguruan gunehandirik eta ez baitute egitura propiorik.

EGUNKARIA.— Zer eragin du horrek euskaldunen gaitasunaren galeran?

RAMOS.— Iruñeak edo Iruñerriak, azken finean, ez die euskaldun horien beharrei erantzunik ematen, muga bat dago, eta Iruñeak behar bezala erantzuten ez badu normalizazioa ez da lortuko. Zera erran nahi dut, zonalde euskaldunetan hainbat gauza, bai administra-

hobetu behar du, gero eta hiztun gehiago izan eta erabilera areagotzeko. Hemen daukaguna, ordea, kontrakoa da, hiztun nahiko dagoen lekutan, euskaldungoa gehiengo den lekutan, eskubide batzuk aitortzen zaizkie hiztun horiei. Hiztun kopurua txikia denean, berriz, ez da erabilera bultzatzen. Hizkuntz politika bat beti dugu, bai aldekoa edo kontrakoa, baina halako planteamendu zabalak bidez, nahiz eta ahaleginak egin, oraindik ez gara euskararen erabilera indartzen hasi. Eta hori beharrezkoa da hiztunak animatzeko. Herri ekimenaren ahaleginak ere, halaber, funtsezkoak dira.

EGUNKARIA.— Askotan, ordea, nahiz eta presioa egiten saiatu, Administrazioarekin egiten dute topo.

NOSKI JATOR

© Zaldí ERDA

LULUBEL ETA EGA-REN AHOZKO AZTERKETA

